



Izar txikiek argitutako oholza

Adin guztietako aktoreek eta dantzariak onena emanda, Kukukaren Hamabostaldiko oihalak behera egingo du igandean / 6-7

TXINTXARRI

Merceroren ondarea

Zinemagilearen obrari eta bizitzari buruzko edukiak bildu dituzte webgune bakarrean / 5

Bestelako kontsumo ereduak ezagutaraziko ditu IrtenBidetik AlternatiBATU herri mugimenduak / 2

Beteranoen kategorian Gipuzkoako txapeldun izan dira Illarramendi eta Mendibe, Zarauzko triatloian / 10

ZURE UKIPEN-LENTEAK EROSITA,
ERAMAN EZAZU

Wildgo

BETAURREKOA OPARI

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

www.multiopicasgipuzkoa.com   

Bide berriak elkarrekin urratzeko proposamena

Bestelako kontsumo eredu eta sistema baten alde egiten duten jarduerak sustatzeko eta ezagutzera emateko xedez, IrtenBidetik AlternatiBATU mugimendua sortu dute zenbait lasarteoriatarrek. Halaber, jarduera sorta prestatu dute hilaren 22rako

Txintxarri


Hainbat sektoretako herritarrak elkartu dira IrtenBidetik AlternatiBATU mugimendua osatzeko. Helburu dute sistema kapitalista indibidualistaren eta egungo kontsumo ereduaren aurrean beste bide batzuk badirela erakustea. Hau da, bestelako joerak martxan jarri nahi dituzte, jada abian diren alternatibak ezagutaraztearekin batera.

Lasarte-Oriako beharrak "modu kritiko batean" atzemateko eta "herri hobe bat izateko" zein alternatiba beharko liritekeen ezagutzeko, IrtenBidetik AlternatiBatu Eguna aurrera eramango dute hilaren 22an, larunbata. "Kolorez betetako mundu berriak arnastuko" dituzte, "elkarrekin hausnartu, konspiratu eta ekin". Hala dio egunaren izaera azaltzen duen manifestuak.

Eta ideia bera irudikatzen dute Txakur Gorria kolektiboak sortutako kartelak eta leloak: IrtenBidetik. Esanahi bikoitza duela azaldu zuen Ane Labakak aurkezpenean: "Batetik, gizarteak hain zehatz markatzen digun bide horretatik ateratzea delako alternatibak bilatzea; eta, bestalde, irtenbidea gaur egun hori izan daitekeela iruditzen zitzaigulako". Kartelak aurpegi bat irudikatzen du begi bat bidetik kanpo duena, eta bestea, marra batzuek zeharkatuta, "zirrikituak bilatzea" iradokitzen duten arrakalak.

Hausnarketa partekatua

Bidetik ateratzeko gonbidapen hori, paradoxikoki, ibilbide batekin hasiko dute. Bost geldialdi egingo dituzte hainbat gai lantzeko: Elikadura burujabetza, Irlako baratzetan; Decosocial eta etxebizitza kooperatiboak, pabilioietan; periferia-zentroa, Basaundin; eta hirigintza, erdigunean. Ondoren, ekonomia sozialean diharduten hiru proiektu ezagutzeko parada izango da: **Goien er energia**



IrtenBidetik Alternatibatu herri mugimenduaren aurkezpeneko irudi bat. ALTERNATIBATU

Egitaraua

- **09:15-11:45.** Landu ikuspegi kritikoa ibilbide gidatua.
- **10:00-14:00.** Gertuko azoka.
- **12:30-14:00.** Esperientzia kooperatiboak: Goien er, Izarkom, Koop 57.
- **14:30.** Bazkaria. Txartelak Trumoi eta Ilargin salgai.
- **16:30.** Kultur topalekua baino gehiago mahai ingurua.
- **18:45.** Duo du Portu taldearen kontzertua.

berriztagarriak, Izarkom komunikazioa kooperatiba, eta Koop57 finantza etiko eta solidarioa. Era berean, goiz osoan Oriarte institutuaren ondoko plazan gertuko azoka izango da: nekazariak, artisauek, sortzaileak, bitxigileak...

Bukatzean, institutuko jolastokian herri bazkaria egingo dute. Horretarako txartelak Trumoi eta Ilargi tabernetan salgai daude. 15 euroko salneurria

ORIANTE INSTITUTUA IZANGO DA EKIMENEN GUNE NAGUSIA, ALTERNATIBAK EZAGUTZEKO TOKIA

dute; langabeek, ordea, merkeago eskura ditzakete, 10 eurotan.

Indarberrituta ekingo diote arratsaldeari. Gimnasioan, zenbait kultur espazioren arteko mahaingurua egingo dute. Bertan parte hartuko dute Iruñeko Katakarak liburudenda eta eztabaidaguneak, Azpeitiako Kultur Mahaia, Astra Gernikako kulturarako fabrika sozialak, Eltzea gizarte eta kultur arloko elkarten arteko proiektu kolektiboak eta Aiaraldeko Ekintzen faktoriak. Euren esperientziaren berri eman eta elkarrekin gogoeta egiteko espazio bat sortuko dute.

Eguna amaitzeko kalean bertan kontzertu "xumea" emango du Duo du portu taldeak.



TXINTXARRI

Transexualitateaz hausnarketa

HiKuru taldeak egindako *Trans-formatzen* dokumentala ikusi eta gaiaren inguruan gogoeta egiteko parada izan zuten joan den ostiralean Manuel Lekuona kultur etxera bertaratu zirenek. Ekaitz Goikoetxeak zuzendutako lanak, besteak beste, norbanako transexualen eta haien familien lekukotzak jasotzen ditu. Haietako batek ere parte hartu zuen mahainguruan.



TXINTXARRI

Yogaren Eguneko ekimenak

Yogaren Nazioarteko Eguna ekainaren 21ean dela aitzakiatzat hartuta, hainbat ekimen ireki egingo dituzte herrian. Egunean bertan, *La experiencia del yoga* mahaingurua, Manuel Lekuona kultur etxean, 19:00etan. Igandean, 23an, berriz, Tximistarreta parkean gidatutako meditazioa eta asanak -yoga posturak-. Ondoren herri bazkaria, Arrieskalleta elkartean. Bazkarirako izena emateko edo informazio gehiagorako jo yogalasarte.org webgunera.

Elkarretaratze berezia egingo dute pentsiodunek

Hilabeteak daramatza Lasarte-Oriako pentsiodun eta jubilatuen koordinadorak astelehenero elkarretaratzea egiten udaletxe aurrean. Datorrena, hilaren 17koa, ez da salbuespena izango; egun horretarako, ordea, zerbait berezia prestatu dute urtearen lehen erdia ixteko. Hain zuzen ere, plataformako zenbait kidek eta

bestelako boluntarioek kantuan aldarrikatuko dituzte euren eskubideak, baita haiek lortu arte ez dutela etsiko ere.

Bestalde, larunbatean, hilak 22, manifestazio berezi batera deitu dituzte herritarrak. Okendo plazatik irtengo dira 12:00etan, eta oraindik zehaztu gabeko ibilbidea osatuko dute. Arratsaldean, berriz, Txosnetako Jai Batzordeak suzuria pizteko egindako gonbita onartuko dute, plataformari eskertza gisa.

Elebeltz Topaguneak atearak ireki ditu berriro

Lasarte-Oriako gazte talde batek gogor egin du lan azken hilabeteetan. Elebeltz erreformatu du, itxuraz aldatu, baina esentziari eutsita: sorkuntza eta eztabaida askerako gune autogestionatu bat izatea. Asteburuan egin dute berririkiera festa

Iñigo Gonzalez Sarobe

Elebeltzek berriro du itxura, baina barruan daraman esentziak berbera izaten jarraitzen du: sorkuntza eta eztabaida askerako gune autogestionatu bat izatea, belaunaldi desberdinetako jendea bertan elkartzeko eta ideia eta proiektuak garatzeko. Lasarte-Oriako gazte talde bat arduratu da azken hilabeteetan gunea erreformatzeaz. Lanak bukatuta, pasa den asteko ostiralean ospatu zuten berririkiera festa.

Jaume Rouresen zuzendutako *Las cloacas del interior* dokumentala proiektatu zuten arratsaldean. Ondoren, gunearen historia ezagutarazi zuten, hasierako urteetan Elebeltz dinamizatzen aritu ziren zenbait herritarren eskutik; 2012ko abenduan okupatu zuten hutsik zegoen biltegi bat. Maialen Aristegi kantautoreak emanaldia eskaini zuten hitzaldia bukatu eta segituan.

Gauean jarraitu zuten festak. Skakeo herriko taldeak ireki zuten kontzertu sorta. Txorroskilo punk-rock talde donostiarrak zuzeneko indartsua daukara erakutsi zuten gero. DJak oholtzara irten aurretik, Zestoatik etorritako Rodeo rock taldeak eskaini zuten kontzertua. Jende ugari gerturatu zen musika



Skakeo herriko taldeak ireki zuten ostiral gaueko kontzertu sorta. TXINTXARRI

emanaldiez gozatzen. Tabernan zebiltzan gazteek gogotik egin zuten lan gau osoan.

Elebeltzen sorrera ezagutzen

Joseba Izagirre eta Igor Arias herritarrek oso gertutik bizi izan zuten Elebeltzen sorrera. Krisi ekonomikoaren ostean, Kale Nagusian dauden hainbat fabrika hutsik geratu ziren. Horieta lokal batean sartu ziren hainbat gazte, eta sorkuntza eta eztabaida askerako gune bat sortu zuten. "Gaztetxe hitza ez erabiltzea erabaki zuten asanbladak, ez

genuelako inor kanpoan utzi nahi", nabarmendu zuten Ariasek.

Hilabeteak pasa zituzten lanean, lokala egokitzen eta txukuntzen. "Asmoa geneukan sukalde bat jartzeko, ikastaroak eta emateko han, baina azkenean ez zen posible izan", gogoratu zuten Izagirrek. Kontzertuak, hitzaldiak, jardunaldiak... ekintza ugari antolatu zituzten gunea autogestionatu ahal izateko eta hobekuntzak egiteko.

Belaunaldi berriek hartu dute lekukoa orain. Ateak ireki ditu berriro Elebeltz Topaguneak.



LIERNI REKONDO

Ardura

- Berarekin haserre zaude?
- Ez, burla egiten diot gizona delako.

Duela egun batzuk, elkarrizketa hau entzun nuen hamar urte inguruko bi neskatxen ahotik. Momentuan kontrako eztairik joan zitzaizkidan hitzak buruan darabilzkit geroztik. Batez ere, esateko moduak eman zidan zer pentsatua; haur horrek naturaltasun osoz kontaktzen zuen beste pertsona bat jazartzen zuela bere itxura fisikoarengatik eta ez zuen ekintza larritzat jotzen, halako erasoak naturalizatu ditugun seinale.

Besteen gorputzekin sartzeko zilegitasuna dugula ikasi dugu, gorputz ez normatiboak gaitzesten, albokoak zapaltzen haiek gu zapaldu ez gaitzaten. Eta hala sortzen dira gudan ixten hain zailak diren azalpeko zauriak, hala sortzen dira elikadura nahasmenduak eta norberaren gorputzarekiko gorrotoa.

Hau irakurtzean egungo sistemaren ondorio dela etorriko zaizue burura zuetako askori, eta berez, arrazoirik ez zaizue falta. Esango dizue hezkuntza sistemak ere baduela eragina eta komunikabideek eredu toxikoak eskaintzen dizkigutela. Erraza da errua gure eskumenetik at dagoenari botatzea, baina uste dut zerbait gaizki egiten gabiltzala helduok ere. Zein zentzu dauka gure kargu dugun haurrari besteen gorputzak epaitu behar ez direla esateak, ondoren, bizilagunak izandako pisu galeraren inguruko iruzkin bat egiten badugu?

Eredu garen heinean geure hitzak eta jarrerak neurtu behar genituzke, ez baita nahikoa haurrei horrelakoak onargarriak ez dira adieraztea, gugandik jasotzen dutena guztiz kontrako bada. Komeniko litzaiguke, beraz, tartetxo bat hartzea norberaren kontraesanen inguruan lanketa bat egiteko. Baliteke errua sistemarena izatea, ados. Baina hasi behar dugu errua eta ardura bereizten. Errua sistemarena da, bai; aldatzeko ardura, ordea, gurea.

Eskola materialaren erosketa diruz lagunduko du udalak

Eskola materiala erosteko diru laguntza aurkeztu du udalak. Familiaren diru sarreraren arabera, 90, 65 edo 35 eurokoa izango da laguntza. Berrikuntza gisa, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako erdi mailako ikasleek ere eskatu ahal izango dute.

Laguntzak xede bikoitza du. Batetik, 40.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familiei eskola materiala lortzen erraztea, eta bestetik, herriko dendetan erosketak sustatzea. Uztailaren 1etik irailaren 30era artean egindako erosketak kontuan hartuko dituzte, eta eskaera irailean aurkeztu beharko dute. Oinarri osoak udalaren webgunean ikus daitezke.

Ttakuneko bazkide zara?

Ekainean, zikiri afarirako bi txartel zozkatuko ditugu gure bazkideen artean. Zozketan sartu nahi baduzu, eman izena ekainak 17a baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, Ttakunen bulegoan, 646 82 44 66-ra whatsapp-a bidalita edota 943 37 14 48 zenbakira deituta.

Bazkideitza informazioa

@TtakunKE

Zozketa!

Israel & Grezia

IRTEERA 2019ko IRAILEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Ventanas Alcar komertzioan aurkeztu dute antolatzaileek rallyaren egitaraua. Berrikuntza ugari dakartza. TXINTXARRI

Hiru egun, bi gurpilen gainean gozatzeko

Motor hotsak entzungo dira gaurtik igandera Lasarte-Orian. Scooter Club Euskadi elkarteak vespa eta lambretta rallya antolatu du, aurten hemeretzigarrenez: bost urte daramatzate jarraian herrira etortzen. Hastear da motorzaleen festa handia

Txintxarri

Ventanas Alcar komertzioaren erakusleioa berezia izan da asteburu honetan. Vespak eta lambrettak salgai zeudela zirudien. Ormazabal loradendan, Artizar tabernan eta Natur Housen ere bai. Scooter Club Euskadi elkarteak antolatutako vespa eta lambretta rallya hartu dute oinarri lauek, euren dendak apaintzeko. Gaur hasiko da, eta igandean bukatu. Hiru egun, bi gurpilen gainean gozatzeko.

Programa eskuetan hartu eta berehala ihes egiten du begiradak kartelera. Esjusa enpresak duela zenbait hamarkada sortutako Montaplex jostailuetan oinarrituta dago; Scooter-Plex irakur daiteke afixan. Kamisetak ere egin dituzte, jostailuzko scooter bat muntatzeko jarraitu beharreko urratekin.

Egitarauaren bizkarrezurra pasa diren edizioen oso antzekoa da –bost urte daramatzate herrira etortzen–, baina berrikuntza ugari ere badakartza. Esate baterako, motorzaleek gaur

gauean egingo duten ibilbidea. 22:30ean abiatuko dira, eta herriko kaleak zeharkatu. Igande eguerdikoa izango da asteburuko momentu bitxienetako bat: rallyko parte-hartzaileek Atsobakar parkean bazkalduko dute, Rocioko erromeria ospatzen ariko diren herritarrekin batera. Semblante Andaluz elkarteak kideek egindako paella dastatuko dute.

Egitaraua, ekintzaz lepo

Gaur eman beharko dute izena rallyan parte hartu nahi duten pertsonak, 19:00etatik aurrera, Jaizkibel plazan. Irekiera festa gauerdia arte luzatuko da, Buenetxea tabernan. Mega Ramone eta Paddy DJek girotuko dute gaua.

HERRIAN ZEHAR IBILIKO DIRA MOTORZALEAK GAUR GAUEAN, 22:30ETIK AURRERA

Vespak eta lambrettak atsegin dituztenek edo inoiz gertutik ikusi ez dituztenek aukera aparta dute bihar goizean Okendo plazan. Goizeko hamarretan irekiko dute erakusketa. Pare bat orduz egongo dira motorrak aparkatuta han: 12:00etan hasiko dute motorzaleek 85 kilometroko ibilbidea. Hernaniko Jauregi jatetxean bazkalduko dute, eta herrira bueltatu arratsaldean. Eguneko bigarren erakusketa 18:30ean hasiko da, Zumaburu auzoko Andapa plazan. Gauerako plana, gaurkoaren antzekoa: kontzertuak eta festa giroa Buenetxean. Stupiditos taldeak eta Magri SV eta Koko Txanel DJek jarriko dute musika.

Igande eguerdikoa bermuta Arkupe tabernan hartuko dute motor gidariek. Ondoren, Atsobakar parkean bazkalduko dute. Euskal Herri eta Espainia osotik etorriko dira vespak eta lambrettak. Calatayud (Zaragoza) hiritik, adibidez, aurten aurrenekoz.



Haur eta gurasoek kamisetak margotu zituzten, Gurasolandiako azken jardueran. TXINTXARRI

Jolasean eta lagun artean euskaraz trebatzen

Gurasolandia ekimeneko parte hartzaileek jarduera bereziekin eman diote amaiera ikasturteari

Txintxarri

Ikasturtea amaitzean da, eta horrekin batera, Gurasolandia ekimenak ere agur esan dio urteari. Modu berezian izan da, gainera.

Lehenengo astean, HH2 mailako haurrek ederki gozatu zuten Saltogelan. Horma bota eta batetik bestera korrika, saltoka eta jolasean ibili ziren.

Eta 3 urteko haurrek *Diafreo* saioa izan zuten. Haien sentimenduak kudeatzeko ariketak egiten ikasi zuten.

Aste honetan, berriz, HH4koen txanda izan da. Atzo eta gaur, ostirala, Gau Gau estudioan

izango dira. Bakoitzak bere kamiseta serigrafiatu ahaliko du. Hurrengo ostiralean, ekainaren 21ean, bestalde, HH5eko lagunek Ekogunera txangoa egingo dute.

Azarotik ekainera bitartean, HH2 eta HH5 haur eta gurasoak bildu dira hilean behin, euskaraz jolastu eta solasteko. Maila bakoitzak gai bat landu du. 2 urteko taldeak sentimenduak aztertu ditu ipuin, kanta eta masajeen bitartez; HH3 mailakoek natura; 4 urtekoak sorkuntzan buru belarri murgildu dira; eta HH5ekoak gorputz eta adierazpen artistikoetan trebatu dira.



TXINTXARRI

Irudimena margotzen

Brancussi akademiako ikasleek ikasturtean zehar sortutako margolanak jarri dituzte ikusgai Antonio Mercero aretoan. Gaur itxiko ditu atek erakusketak. Gazteenek akrilikoaren teknika ikasten dute, eta helduagoak diren ikasleek oleoan margotzen dute. Akademiako irakasle Jose Manuel Mongek prestatu du erakusketa, dozenaka koadrorekin.

Merceroren ibilbidearen erakusleiho birtuala

Lasarteoriatarren obra erakusteko eta balioesteko museo birtual bat sortu du udalak, aldundiak diruz lagunduta. Herriko lametza enpresak garatu du webgunea; bertan, zinemagilearen lan guztiei buruzko askotariko edukiak bildu dituzte

Txintxarri

Alzheimerrak aurrera egin zuenean, film kuttunena behin eta berriro ikusi omen zuen Antonio Mercero, lehen aldia bailitzan. Haren lanarekin gauza bera egin nahi dutenek, Antonio Mercero museo birtualean egiteko aukera dute aurrerantzean www.antoniomercero.eus. Bertan eskuragarri jarri dute 2018an hildako zinemagilearen obrari buruzko material eskerga.

Duela hamarkada bat egin zituen lehen urratsak Lasarte-Oriako Udalaren proiektuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundua. Urteotan aldatzen eta uneko aukeretera egokitzen joan dira, edukiak batzen eta digitalizatzen. Jesus Zaballos jarduneko alkateak eta Denis Itxaso jarduneko Kultur diputatuak parte hartu zuten atariaren aurkezpenean, zuzendariaren izenarekin bataiatutako gunean.

Herriko lametza enpresak garatu du webgunea. Edukiak hiru atal nagusitan banatu dituzte: bizitza, lanak eta sariak. Ekoizpenak kronologikoki edo alorke kontsulta daitezke. Pieza bakoitzari lotutako elementuak daude: artikulua, kartelak, argazkiak... Lau hizkuntzatan bisita daiteke, eta Mercero euskalduna ez bazen ere, lehenetsitako hizkuntza euskara



Jesus Zaballos eta Denis Itxaso osteguneko aurkezpenean. TXINTXARRI

da, nazioartean duen sona hizkuntzaren mesedetan jarri nahi izan baitute.

Santa Anako paradoriaren babesle Lasarteoriatarren beraren eta bere obraren garrantziari buruz mintzatu zen Zaballos. Zinema alorrean lortutako Goya edo Emmy sariez gain, gogora ekarri zituen ere herrian bertan egindakoak: Frankismo garaian Santa Anako parodia gordetzeko egindako lana edo *Baserri galdu* dokumentala. Halaber, ekitaldian egon ezin izan zuen Merceroren senideei euren "konpromisoa eta eskuzabaltasuna" aitortu zizkien.

"Amets zahar hau" gauzatu izanagatik pozik, Itxaso diputatuak gogora ekarri zuen zinemagileak lurraldeko ondare immaterialean duen garrantzia. "Herrikoitu egin zuen generoa, zinema gertuko eta zuzenarekin, baina aldi berean, sakona, ausarta eta inplikazioa soziala zuena". Merceroren obra balioesteko sortutako gunea irisgarriago egiteko Aldundiaren Kultura ataleko webgunean ere jarri nahi du Itxasok plataformara sarbidea.

Ekitaldia amaitzeko, alargunaren eta seme-alaben izenean eskertza hitz batzuk irakurri zituen Zaballosek.



Azken batzarra egin dute aste honetan. Irudian, marboko udalbatzarra. TXINTXARRI

EH Bilduk Martin alkategai aurkeztuko du udalbatzarrean

PSE-EEren eta EAJren arteko akordioak zapuztu du udal gobernu alternatibo bat eratzeko aukera

Txintxarri

Lasarte-Orian hurrengo lau urteetan nork aginduko duen erabakiko dute bihar, larunbatean, udalbatzar aretoan. Maiatzaren 26an hautatutako zinegotziek haien lekua hartuko dute, eta alkatea nor izango den erabaki. Hauteskundeak irabazita, PSE-EEK Jesus Zaballos jarduneko alkatea aurkeztuko du. Baina gehiengo osorik ez du, eta gobernatu ahal izateko makulua beharko du. EH Bildu saiatu da aginte makila berreskuratzen. Prentsa ohar baten bidez jakinarazi duenez, Jon Martin alkategai gisa aurkeztuko dute.

Edonola ere, ia ezinezko izango du Martinek alkatetza lortzea. Azken asteetan oposizioko beste alderdiekin bildu da, EAJ eta Podemosekin, PSE-EEren alternatiba bat osatzeko. Baikor atera dira negoziazio horietatik, emaitza onak eman dituztelako.

Baina Euskal Autonomia Erkidegoko diputazio eta herrietan agintzeko jeltzaleek eta sozialistek eginiko itunak kalte egingo die. "Aukerarik gabe utzi dituzte elkarrikeria horiek", adierazi du Lasarte-Oriako EH Bilduk.

Zenbakiek ez dute emango

Nolanahi ere, eta jakin arren zenbakiek ematen ez dutela, Martin aurkeztuko dute berdin berdin alkategai. "PSOEn udal gobernuari alternatiba bat ehuntzea posible dela ikusi dugu, eta hori irudikatzen du udalbatza eratzeko bilkuran alkategaia aurkeztuko dugu".

PSE-EEK zortzi zinegotzi lortu zituen aurreko hauteskundeetan, orain lau urte baino bat gehiago. EH Bilduk lau irabazi zituen, nahiz eta bosgarrena gertu izan. EAJk hiru ordezkari izango ditu, eta Elkarrekin Podemosek bi. PPK ez du ordezkariarik izango.

'Leku guztietan kultura', herriko txoko guztiak dinamizatzen

Aterpeak kontzertuak eta emanaldiak antolatu ditu ekainaren 20an eta 21ean, herriko plazak girotzeko

Txintxarri

Aterpea merkatarien eta ostalarien elkarteak *Leku guztietan kultura* ekimena aurkeztu du, udalaren laguntzarekin. Herriko plaza

eta kale guztiak dinamizatu nahi dituzte, kontzertuak erdigunetik kanpo antolatuta. Modu horretan, ekainaren 20an Goikalen Sin Fronteras taldeak joko du. Bigarren emanaldia

biharamunean izango da: Eriz Magoaren ikuskizuna, Okendo plazan.

Bi emanaldiak 19:00etan hasiko dira, eta ordu bete iraungo dute. Ekainean sanpedroen aurretik kaleak girotzea dute helburu. Beste bigarren aldi bat izango du kanpainak, uztailean bertan.

Lasarte-Oriako Udalak babestu du ekimena, herriguneaz aparte, periferiako auzoak eta kaleak ere biziberritzeko helburuarekin.



Jesus Zaballos alkatea, Aterpeko ordezkariekin. TXINTXARRI

Trebezia printzak

Antzerki eta Dantza Hamabostaldia amaitzean da

Haur, gazte edo heldu; antzerkia eta dantza egiteko adinik ez dagoela erakutsi dute aste honetan Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako kideek. Larunbatean helduen txanda izan zen. Dantza garaikide taldeek erritmo ugarietako koreografiak erakutsi zituzten Manuel Lekuona kultur etxeko oholtzan. *Fermin* antzezlanaren aurkeztu zuen antzerki taldeak. Asteazken, goiz eta arratsalde, ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako haur eta gazteek ikaskideei eta ahaideei haien dohainak erakutsi dizkiete. Euskal Mitologia, telebista saioak, film ezagunak... gai askotan oinarritutako lanak izan dira ikusgai. Alabaina, ez da hamabostaldia amaitu oraindik. Bihar, larunbata, Oriarte institutuko DBH 1. eta 2. go taldeek antzezlanak eskainiko dituzte. Igandean, berriz, bi saio izango dira. Eguerdian, euskal dantza sorkuntzako taldeen ikuskizunaz gozatu ahalko da. Azkenik, Oriarteko DBH 3. mailako *Gu bai leloak* antzezlanak amaiera emango dio antzerki eta dantza eskolako ikasleen erakustaldiari.



Dantza garaikideko erakustaldia egin zuten helduek larunbatean, kultur etxean. TXINTXARRI



Fermin lana taularatu zuten helduek larunbat iluntzean. TXINTXARRI



Asteazkenean, DBHko gazteek gelakideei eskaini zizkieten lanak. TXINTXARRI



DBH3. mailako *Gu bai leloak* antzezlanaren erakustaldia. TXINTXARRI



LH3. eta LH4. mailakoek *Hakuna Matata* lana erakutsi zuten. TXINTXARRI



LH3. eta LH4. mailakoek alegoriako mundu bat oihartzaratu zuten. TXINTXARRI



LH1 eta LH2 mailako txikiek errekalorez eta sorginez bete zuten Manuel Lekuonako aretoa. TXINTXARRI



Landaberriko LH 5. eta 6. mailakoak, Grease musikala antzezten. TXINTXARRI



Euskal dantza sorkuntzako koreografiak ere gozatu zuten Oriarteko DBHko ikasleek asteazkenean. TXINTXARRI



Euskal Talent lana oholtzaratu zuten Landaberriko ikasleek ostegunean. TXINTXARRI

EPA LASARTE HHI 2019-2020 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK: Ekainaren 17tik 28ra

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionaturako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza** (DBHko titulua lortzeko moduluak).
- **Gaztelania atzeritarrentzat.**
- **EUSKARA (0-1-2 mailak).**
- **Informatika.**




Ordutegia:
10:00-13:00
(anbulategi gainean)

PLAZAN BAZAN

Itzala

Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?



Hamabikoa

Neska-mutilok ikasgelatik atera eta liburutegira doaz sokari helduta...



Labirintoa

Aurkitu labirintotik ateratzeko bidea, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu, irudiko neskato lotiari oso ongi ematen diona, bide batez esanda. Puntu grisak hitzen arteko tartea irudikatzen du.



sekuentzia

	♥ E	🚤 G	🐌 I	🍰 N	♥ G	🐌 O	🥛 N	✉ U	🔑 K	☕ W	A 🖐	🩹 A	🌸 S		
	🍳 A	🔪 F	🍇 O	🍄 S	🚤 E	🐌 T	🍰 U	🍬 B	🥬 E	🐛 D	☕ G	🖋 A	🍇 Z		
	♥ E	🚤 G	🐌 I	🍰 N	♥ P	🚤 E	🐌 I	🍰 H	♥ E	🚤 D	🐌 G	🍰 L	🔑 I		
🍦 A	♥ F	🐌 O	🥛 S	🌰 E	🍰 N	☕ S	🔑 Q	🥛 B	🕷 E	♥ H	🌸 U	✉ S	🖐 E	🥛 B	🍦 G
🎲 T	🚤 U	🍰 O	🐟 S	🍒 E	♥	🧶 E	🍦 H	🖐 A	🌿 N	🚤	🐌 H	🍰 U	♥ S	🍌 B	🩹 G
🌰 E	🐌 D	♥ H	🖐 A	🍆 J	🚤 E	🩹 N	🍦 U	🍄 A	🍰 B	🐌 S	🍆 G	🌿 E	🐛	🍒 I	
🌿 I	🍰 O	🚤 A	🍄 B	📦	🐌 Z	🍌 B	🐌 A	🥬 E	🎲 Z	🌸 E	☕	🚤 O	🐌	🍰 D	♥ U
🔌 B	♥ E	🐌 H	🥬 U	🍌 S	🍰 A	🍏 B	🖋 E	🥛	🍦 O	🐛 E	🩹 U	♥ G	🩹 S	🥛 G	🚤 N
🎵 I	🚤 O	🍏 A	🍬 B	🕷	♥ N	🚤	🐌 L	🍰 O	🌸 L	🎲 G	🌸 A	🍰 N	🥬 K	🥬 E	🐌
🍏 A	🐌 B	☕ S	🐛 U	🔑 H	🐦 K	🍏 E	🦋 T	♥ O	🍳 O	🐌 B	🌰 E	🐌 A	🍊 S	🍄 K	🍰 M
✉ B	🍰 E	🐟 C	🍇 U	🍒 A	🍳 H	🍏 L	🐛 O	🚤 E	🐌 T	🍰 A	♥	🚤 J	🍬 L	🐦 G	♥ E
👟 R	♥ R	⚽ A	🌸 U	🐞 A	🍔 H	🦋 L	🕷 O	🍊 E	🍰 R	🌿 A	🩹 U	🌰 A	✉ B	🕷 L	🚤 H
🍊 R	🚤 E	🐌	🍏 I	🖋 E	🍦 C	🥬 J	🐌 L	🍌 O	♥ A	✉ U	🧶 S	🍒 U	🍦	🌿 R	🐌 E
🩹 B	🧶 N	🪄 S	🌿	🍌 J	🍆 L	🌸 A	🌰	🐌 O	🚤 G	🐦 A	🌸 U	♥ I	☕ F	🍰 E	

Idatzi hemen esaldia.



...eta hemen, berriz, liburutegitik ikasgelara bueltan datoz. Aurki itzazu bi irudien arteko aldeak. 12 dira guztira.



Mendibe eta Illarramendi, txapeldunak Zarautzen

Itsaso zakarrak baldintzatu du proba, lasterketa gogortu duelako. Ramon Altuna eta Mikel Camachok ere txukun bukatu dute Euskal Herriko triatloi jendetsuena. Parte hartzaileak bat datoz: errepide bazterretan pilotutako zaleek egiten dute berezia

Adrian Garcia

Lasterketa oso berezia da. 1987an antolatatu zuten lehenengo aldiz Zarauzko triatloia, eta ordutik etenik gabe bildu ditu inguruko kirolaririk onenak. Dorsalak denbora gutxian agortzen dira, eta herriko kaleak eta errepideak zalez betetzen. Maria Mendibe eta Andoni Illarramendi herritarrek ongi ezagutzen dute proba. Ibilbide gogorra izaki, dezente sufritutakoak dira bertan; baina une gozoak ere bizi izan dituzte. Joan den asteburuan, esaterako; biek Gipuzkoako txapela jantzi dute beterranoen kategorian. Biek entrenatzen dute Buruntzaldea IKT taldean. Ramon Altunak eta Mikel Camachok ere txukun bukatu dute lasterketa.

Distantziaertaineko triatloia da Zarauzkoa. 2,9 kilometro egin behar dituzte igerian, Getariatik Zarauzko hondartzara. Itsasoan egiteak proba erakargarria egiten du, baina baditu beste zailtasunak: korranteek, mareek, olatuek eta beste elementuek zaildu egin dezakete kirolarien jarduna.

79 kilometroko bizikletako zatia ere ez da nolana hikoia. Bitan igo behar dute Meagaseko portua. Halere, gogorrakoak dira Aiako horma eta azken kilometroetako Txurrukako igoera.

Bukatzeke, 21 kilometro lasterka egin behar dute, hiru bira emanda Zarautz herriguneko zirkuito bati.

"Ibilbidea oso gogorra da, eta horrek egiten du erakargarria". Zazpigarren aldian du Mendibek Zarauzko triatloian; onartu du "lasterketa berezia" dela. "Ikusleen animoek egiten dute proba bakarra".

Gipuzkoako txapelketa ere jokatu dute asteburuan, eta, 05:14:04 denborarekin, beterranoen kategorian txapela lortu du herritarrek. Baina horrez gain, sailkapen orokorrean ere hirugarren tokian geratu da.

"Igeri eta bizikletan ondo bukatu dut, korrika ez hainbeste, ez dudalako horrenbeste entrenatu". Izan ere, Mendibek iaz ezin izan zuen parte hartu, min hartuta zegoelako. Nahiz eta marka ona egin, aitortu du, "maila onenetik urrun" dagoela, urtebete lehiatu gabe egon delako.

IRAILEAN MUNDUKO TXAPELKETA PARTE HARTUKO DU ANDONI ILLARRAMENDIK, NIZA HIRIAN


Baldintzak ere ez dira hoberenak izan. Itsasoa zakar zegoen, eta ohi baino energia gehiago gastatu dute triatletek Zarauzko hondartzaraino iristen. "Bizikletan hankak gogortu egiten zaizkizu. Txurrukako aldapa oso gogorra da. Korrikako zatira justu iristen zara".

Denboraldia amaitzeko bi proba geratzen zaizkio Mendiberi. Larunbatean Lekeitio lehiatuko du, esprint modalitatean. "Arnas luzekoa naiz ni, hobeto moldatzen naiz lasterketa luzeetan". Atsedean hartu aurretik, Donostiako Onditzen arituko da.

Urak baldintzatuta

Illarramendirentzako lasterketa "arraroa" izan da. 4:28:57 denborarekin bukatu du, baina azaldu du igeriketako zatiak eragina izan duela proba osoan. "Oso mugituta zegoen itsasoa, ur asko tragatu dugu, eta gero asko tripekin gaizki ibili gara". Edonola ere, Gipuzkoako txapelketaz gainera, beterranoetan laugarren postuan sailkatu da.

Itsaso kaskarrak gero izan ditu ondorioak beste bi zatietan. Proba luzea da distantzia erdiko triatloia, eta, hortaz, komenigarria da ondo elikatzea eta hidratatzea lasterketa osoan.



Maria Mendibe, ahalegin betean. GARIKOITZ BARRIO

Baina urdaileko arazoak lasterkariak makaldu ditu. "Asko botaka ibili dira".

Urte mordoan daramatza triatloilariak Zarautzen parte hartzen. "Berezia da jendearengatik. Herritarren eta kanpotik datozenen animoek egiten dute lasterketa gogoangarria. Antolakuntza hobek dutenak badira, baina giro aldetik ez".

Pozik geratu da Illarramendi lasterketarekin, batez ere kontuan hartuta denboraldiko

helburua orain hiru aste bete zuela. Bartzelonako distantzia erdiko triatloian Ironman 70.3 munduko txapelketarako sailkatzea lortu zuen. Nizan jokatu da aurten, Frantzia, irailaren 7an.

Illarramendik ere Onditzeko triatloia egingo du, atsedean hartu eta uda aldean munduko txapelketa prestatzeko. Ibilbide gogorra du, Zarauzkoa baino are gorabeheratsuagoa. "1.000 metroko desnibela baino gehiago du bizikletako tarreak".

Asteburu bete lehiaketa Ostadar Inklusioarentzat

Denboraldia amaitzear dute kirolari urdin-beltzek. Aulki gurpildun saskibaloian, atletismoan eta boccian aritu dira

Txintxarri

Kirol txapelketa bat baino gehiago jokatu dituzte Ostadar Inklusioko gazteek asteburu honetan. Eskarmentua pilotzeaz gainera, emaitza onak ere lortu dituzte kirolariek, domina

batzuk tarteko. Gasteizen aulki gurpildun saskibaloiko eskolen arteko txapelketa jokatu dute, eta Ostadarreko kirolariak ondo aritu dira. Basaurin, aldiz, atletismoko nazioarteko topaketa batean parte hartu

dute Ane Asensio, Diana Benedicto, Iñigo Benedicto (gia) eta Xuban Santin kirolariek. Guztiek beren markak hobetu dituzte; Asensio eta Diana Benedictok 100 eta 200 metrotan parte hartu dute; Santinek, berriz, 100 metrotan.

Azkenik, Valladoliden Españaoko boccia txapelketa jokatu dute, eta Iker Iglesias BC5 kategoriako txapelduna izan da, Xabi Sagarna entrenatzailearekin batera.



Saskibaloiko taldekideak. TXINTXARRI

Sei domina eta hiru errekor berri Berlinen

Nahia Zudaire igerilaria bost finaletan izan da 33. IDM - World Para Swim World Series proban. Munduko txapelketa prestatzeko baliagarri izan zaio. Asteburu honetan, Buruntzaldea IKTko igerilariak Lasarte-Orian eta Bartzelonan lehia izango dira

Txintxarri

Berlinen jokatu duten 33. IDM - World Para Swim World Series proban lehiatu da Nahia Zudaire Buruntzaldea IKTko igerilaria Espainiako selekzioarekin. Zazpi modalitateetan parte hartu, eta dominak eta markak metatu ditu gazteak.

Zudaire ostegunetik igandera probaz proba aritu zen, eta lehen egunetik txapelketa buru belarri sartu zen. "Aurreko denboraldian S8 kategoria lau urtetarako onartu zioten, eta aurtengoan ez du tribunarik pasa behar izan; zuzenean lehiaketan zentratu da hasiera hasieratik," azaldu du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Bikain hasi zen igerilaria, gainera. 200 m. libre probako kanporaketan marka pertsonala eta Espainiako Absolutu mailako errekorra ondu zuen (2:32,27), eta B finalerako sailkatu zen. Finalean, *youth* kategorian bigarren postua eta zilarrezko domina eskuratu zituen. Proba honetan ere, S8 klaseko sailkapeneko lehen postuan izan zen, eta urrezko domina ere jaso zuen horregatik.

100 m. tximeleta proban, berriz, laugarren postua lortu eta S8 klaseko zilarra kolporatu zuen.

Ostiralean dominarik ez zen izan, baina 800 m. libre proban



Nahia Zudaire, Berlinen. BURUNTZALDEA IKT

bere marka pertsonala 22 segundotan hobetu, eta S8 klaseko Espainiako Absolutu mailako errekor berria ezarri zuen: 11:05,43.

Larunbatean, Buruntzaldea IKTko igerilaria 50 m. libre proban bere markatik oso hurbil aritu zen (33,76), eta S8 sailkapenean bigarren postua eskuratu zituen. 400 m. libre proban ere lehiatu zen; bere marka eta Espainiako errekorra hobetzea lortu zituen (5:16,80). S8 klaseko urrea irabazi eta sailkapen orokorreko laugarren izan zen.

Azken egunean proba bakarria izan zuen Zudairek: lau estiloetako 200 metroak. Gazte finalerako

sailkatzea lortu, eta S8 klaseko brontzea eskuratu zuen.

Igerilari gazteak esperientzia "bikaina" izan du Berlinen. Nazioarteko maila altuko txapelketa horrekin udako entrenamendu zikloa itxi du. Orain atsedean egun batzuk hartu, eta irailean Londresko Munduko Txapelketa prestatzen hasiko da Zudaire.

Bestalde, aste honetan bi hitzordu garrantzitsu dituzte Buruntzaldea IKTko igerilariak. Larunbatean, XXX. Lasarte-Oriako saria jokatu dute Maialen Chourraut kiroldegian. Ainhoa Martin gazteak, berriz, Bartzelona Hiriko trofeoa jokatu du Euskadirekin.

Euskal Herriko mendiak, lasterketaz lasterketaz igotzen

Oiartzun, Lakuntza eta Eskoriatzako mendi lasterketetan parte hartu dute Lasarte-Oriako mendi korrikalariak

Txintxarri

Mendian zein kalean, lasterketa dabilta Lasarte-Oriako korrikalariak. Oiartzun, Lakuntza, Eskoriatza eta Donostian aritu ziren herritarrek aurreko asteburuan.

Mendiko lasterketetan, Oiartzungo Intxisu trail proban izan zen talde ugariena: Lasarte-Oria Trail taldeko Ritxar Marcos, Juanlu de la Mata eta Claudia Alejandra Zarate; Hernaniko Axerriak taldeko Beñat eta Iurgi Los Arcos anaiak; eta Egoitz Salsamendi. Guztien artean Beñat

Los Arcos izan zen lehena helmugara iristen (1:26:43).

Lakuntzako mendi lasterketako bi probatan ere herritarrek izan ziren. Jon Huicik 26 kilometroko proba egin zuen, 2:39:37 denborarekin; Jon Presak, berriz, 12,5 kilometrokoa egin zuen, (1:09:14). Bestalde, Iñaki Letamendik Eskoriatzako Txikirri Txikirri mendi marxa egin zuen.

Errepideko lasterketak ere izan dira asteburuan: Korre Music Night gaueko proba. Gorka Gil izan da herritar azkarrena, 35:03 denborarekin.



TXINTXARRI

Lau t'erdikoan ezin aurrera egin

Lasarte-Oriak ez du ordezkariak Gipuzkoako lau t'erdiko txapelketako finalerdietan, Jon Pello Artetxek Intxurre taldeko Altunaren aurka 11-22 galdu ostean. Hasieran partida orekatua zirudien arren, markagailuan 6 eta 7koa zegoenean Altunak jokoaren kontrola hartu, eta tantoak ongi bukatzen jakin zuen. Nahiz eta saiatu, Artetxek ezin izan zuen arerioa geldiarazi, eta tarte handitzen joan zen.

GAZTE KLUBA AZKEN FESTA!!!

Ekainak 21
16.00 Kamixeta tailerra
16:45 merendola
17:00 txoborro MAGOA

JALGI KAFE ANTZOKIAN

GEZUR GEHI
MADIA KOSTITZEN HARRIGARDA



TXOBORRO MAGOA

www.txoborro.com



Oinarrizko futbola sustatzea helburu du entrenatzaile izandakoaren omenezko txapelketak. TXINTXARRI

Jose Martija futbol txapelketa, larunbatean

Futbol entrenatzaile izandakoaren omenez, alebin mailako mutikoz beteko da Michelingo futbol zelaia, hamabi talde ariko baitira aurrez aurre bihar. Los chavales de Martija jokalaririk ohiek osatutako elkarteak hartu du antolakuntzaren ardura

Txintxarri

Jose Benito Martija futbol txapelketa jokatu dute bihar, larunbata, laugarrenez. Oinarrizko futbola sustatzeko lan eskerga egin zuen entrenatzailearen omenez, baloiari ostikoka ariko dira dozenaka mutiko, 10:00etatik 18:00etara bitartean, Michelingo zelai gainean.

Gaixotasun larri bati aurre egin ezinik hil zen oinarrizko futbol entrenatzailea 2015eko martxoan. Herrian utzitako kirol ondarea gogoratzeko asmoz, duela lau urte ekimena abian jarri zuten bere senideek, Sasoeta Saustatxo taldeak eta harekin futboleko ikasi zuten hainbatek. Alebin edo benjamin kategorietako mutil taldeei bideratutako txapelketa da. Aurten, ordea, lehen urteko alebinak bakarrik lehiatuko dira, hau da, 2008. urtean jaiotakoak.

Guztira, hamabi taldek parte hartuko dute, batzuk puntakoak:

SD Eibar, Real Sociedad, Real Zaragoza, Antiguoko KE, Beti Ona, CD Vasconia, CF Bansander, Añorga KKE, Ostadar SKT, Texas Lasartearra, Real Union eta Martutene KE.

Martijaren mutikoen, lekukoa

Añorgako jubenetan jokatzeari utzi zionetik, hainbat urtez herriko gaztetxoaren artean futbola sustatu zuen Martijak. Texas Lasartearra eta Sasoeta Saustatxo taldeetan entrenatzailea izan zen. Sasoeta auzoan Martija Kirolak denda izan zuen urtetan, baita San Marcial taberna ere. Gainera, Saustatxo elkartearen parte ere izan zen. Iaztik bere izena

TEXAS LASARTEARRA ETA SASOETA SAUSTATXO TALDEEN ENTRENATZAILEA IZAN ZEN MARTIJA

daraman kirol gune bat du bere auzoa izandakoak.

1970-1980ko hamarkadetan berarekin futboleko ikasitako mutiko talde batek Los chavales de Martija elkarteak eratu du aurten, eta txapelketa antolatzeko ardura bere gain hartu dute ere. Javier Martinez eta Antonio Galan kideek aurkezpenaren adierazi zuten, "ardura eta ilusio handiz" ekin diote.

Boluntarioki dihardute, urte askotan martijatarrak herriko haurrekin egindako lanak jarraipena izan dezan. "Gure sentitzen ditugun balio batzuk irakatsi zizkigun eta guk gure seme-alabek barnera ditzaten saiatzen gara".

Nagusiki, kirolari lotutako ekimenak gauzatuko dituzte, aipatu balio horiek gaztetxoek ikasi eta barnera ditzaten. "Berak irakatsitako lana egiten dugu. Lekukoa ilusio handiarekin hartu dugu, ekimenak, txapelketak, jarduerak... antolatuta".



GORKA ARISTEGI

Judoka gazteak, Irungo bilkuran

Judo Club Mayumik antolatuta, XII. Judo topaketa egin zuten asteburuan. Bertan, dozenaka judoka gazte batu ziren, besteren artean, Gorka Aristegik entrenatutako Lasarte-Oriakoak eta Oriokoak. Kirol hori egiten ez dutenek ere parte hartzea izan zuten, eta elkarrekin primerako eguna igaro zuten.



TXINTXARRI

Hondarribia, bigarren Lekeition

Intza Fernandez herritarra Hondarribia traineruarekin bigarrena izan da asteburuan Lekeitioko IX. banderan. 11 traineru aritu ziren lehian, binakako erlojupekoa egin zuten, bi luze eginda. Orioz izan zen garailea 11:51 denbora osatuta. Hondarribiak, berriz, 22 segundo gehiago behar izan zituen.



IDOIA TELLERIA MARITXALAR


Areto futbol eskolen topaketa

Eguzkik antolatuta, areto futboleko taldeen topaketa egin zuten igande goizean. Etxeko taldearekin batera, Antiguoko, Mondrate, Lauburu, eta Eskoriatzako gaztetxoek parte hartu zuten jai giroan egindako txapelketan.

ZORION AGURRAK



Naiara
Zorionak Maitia!!!!
Hamaika muxu handi
aitatxo eta amatxoren
partetik.



Amets
Zorionak Amets!!! Gure
etxeko xomorrito txikiak 2
urte bete ditu. Ze ondo
ospatu genuen zure eguna.
2 behi muxu handi handi
famili guztiaren partez.



Ariane
Aurten zure hatzetatik
hamarrak... Zorionaaaaak
Ariane!! Maitasunez,
etxeko partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu
Txintxarrien bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra
Bidaliz zure zorion agurra
formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan
argitaratuko da webgunean eta
ostiralean Txintxarri paperean.


Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus
helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, urtebetetze-
eguna eta nahi duzun testua. Ez
ahaztu irudia atxikitzea.


Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik
iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo
astearen argitaratuko ditugu.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 14




Larunbata, 15




Igandea, 16




Astelehena, 17




Asteartea, 18



Asteazkena, 19



Osteguna, 20



JAIOTAKOAK

Oier Muga Tome. Ekainaren 10ean.
Aritz Sanchez Cebrian. Ekainaren 8an.
Xuban Gonzalez Pulido. Ekainaren 5ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ordua	Lugarra	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Ostirala, 14	ACHA-ORBEA	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Larunbata, 15	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Igandea, 16	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Astelehena, 17	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteartea, 18	GANDARIAS-URIBE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Asteazkena, 19	ORUE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
Osteguna, 20	DE MIGUEL	GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia
eskuratzeak, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera
(www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9
43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERRI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

GUTUNAK

Eskertza

DBH 3KO IKASLE ETA GURASO TALDEA

Ekainaren 8an Landaberi ikastolako jaialdia ospatu
zen. Honekin lotuta, Oriarte institutuko DBH 3ko gazteek
eta gurasoek parte hartu dugu (aspaldiko ohiturei
jarratuz), horregatik orri hauen bidez eskerrak eman
nahi dizkiegu lagundu diguten guztiei, bestela hau
guztia aurrera eramatea ez zelako posible izango.

İnaki Pikabea Landaberriko atezaina, Landaberi
ikastola, Oriarte institutua, Landaberi guraso elkarte,
Oriartekide guraso elkarte, Usurbilgo udala, Lasarteko
udala, İnaki Urruzola DJ, Asier Arteaga pelotaria,
Beltzak errugbi taldea, Aldika komertziala, Balardi
harategia, Larrañaga harategia, Etxezarreta harategia,
Goxogi okindegia, Berasategi kafe denda, Santana
informatika denda, Cecilia fruta denda, Laboral aurrezki
kutxa, Eroski, Usurbilgo Lanbide Eskola, Buruntzaldea
igeriketa taldea, Labe Goxo, Iraia Iparragirre Errealeko
jokalaria, Okela harategia, Sukoia burdindegia, Copi
Lasarte, Okendoko Kebab eta DR jolas denda.

OHARRAK

Odol ateratzea

San Pedro jaiak direla eta, Lasarte-Oriako odol emileen
elkartek hilabete honetan hitzordu aldaketa dagoela
jakinarazten du. Hilabeteko azken astelehenean egin
ohi den odol ateratzea ekainaren 17an, astelehenean,
izango da, Osasun Zentroan. Ordutegian ez da aldatetarik
egongo, arratsaldeko 17:30etik 20:30era izango dira odol
emariak jasotzen.

Bigarren eskuko liburuaren azoka Oriarten

Oriartekide guraso elkarteak Batxilergoko liburuaren
bigarren eskuko azoka antolatu du.

Ekainaren 18an, 16:00etatik 17:30era, Batxilergo 1 eta
2ko depositoan utziko dira Larrekoetxe eraikinean.
Liburuak erosteko, berriz, ekainaren 20an, 16:00etatik
17:30era, hurbildu beharko dira interesatuak Larrekoetxe
eraikinerak.

Dirua edo saldu ez diren liburuak ekainaren 24an,
jasoko dira 17:30etatik 18:30etara, Larrekoetxe eraikinean.

Antolatzaileek liburuak egoera onean egon beharko
dutela ohartarazi dute. Era berean, liburu bakoitzak
duen prezioaren erdian baloratuko dela ere jakitera
eman dute.

Sorgin dantzako entseguak

Hilabete baino gutxiago geratzen da San Pedro jaiari
hasiera emateko. Hori dela eta, Sorgin dantza prestatzeko
saioak egiten ari dira.

Entseguak ekainaren 25a arte egingo dituzte, astearte
eta ostegunetan, 20:00etatik 21:00etara, Okendo plazan.
Antolatzaileek ohartarazi dute, eguraldi txarra eginez
gero, Okendo plazan guztiak bildu eta batera entsegu
lekura joango direla.

Zikiro afariko txartelak

Urtero legez, Ttakun Kultur Elkarteak San Pedro egun
bezperan zikiro afaria antolatu du. Hitzordua, ekainaren
28an, 21:30ean, izango da, Okendo plazan.

Zikiro erre gozoaz gain, entsalada, postrea, kafea eta
kopaz ere gozatuko dute mahaikideek.

Afarirako txartelak 20 euro balio ditu, eta Ttakun
elkartean daude salgai. Txartelak eskuratzeak azken
eguna ekainaren 21a da.

Eguzki areto futbol entrenamenduak

Eguzki taldeak areto futboleko jokatu nahi duten
gatzetxoei deia egiten die. Hurrengo asteetan entrenamendu
saioak egingo dituzte adinari arabera, Michelingo
kirol gunean edo Maialen Chourraut kiroldegian eta
kirol hori probatzeko aukera izango da.

Kirol eskolako neska-mutilek, 2008 eta 2011 urte
artean jaiotakoek, gaur, ostirala, eta ekainaren
21ean 18:00etan izango dituzte saioak, Michelin
guneko pilotalekuan. Infantil mailako neska-mutilek,
gaur, ostirala, eta ekainaren 21ean bilduko dira leku
berean, 19:00etatik aurrera.

2004 eta 2005 urteetan jaiotako kadete mutilak
Maialen Chourraut kiroldegian izango dute
hitzordua ekainaren 19an, 20:15ean.

Jubenilek berriz, ekainaren 20an izango dute saioa,
20:00etan, kiroldegian.

Senior mailako taldeei dagokionez, mutilen taldeak
ekainaren 18an entrenatuko du eta emakumeenak,
berriz, ekainaren 17an. Saioak 20:00etan hasiko dira.

Eguzki taldeko arduradunek jakitera eman dutenez
sarrera doakoa izango da. Saioetara kirol arropa
egokia eramatea ere eskatzen dute.

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAINITZA

Orduka lan egiteko prest nago, haurrak zaintzen edo garbiketarak lanak egiteko. Telefona: 722 178 177.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048/943 404 015.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeke lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. 663 488 438.

Pertsona bat eskaintzen da zaintzaile gisa lan egiteko orduka, gauetan... Ziurtagiria eta urtetako eskarmentua. 652 246 070

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20



Hurrengo zenbakia sanpedroetako gehigarri berezia izango da

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagire, Iñigo Gonzalez,
Maitane Aidanondo, Beñat Lizaso
eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Gorka Alvarez, Jexu
Artebe, Maider Galardi, Mikel
Yarza, Nerea Segura, Lierni
Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Iñigo Garcia, Naiara
Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Rocioko Erromeria. Asteburuan Semblante Andaluz elkarteak Rocioko erromeraren giroa ekarriko du herrira. Musika eta dantza izango dira nagusi Atsobakarreko parkean, eguerditik gorputzak ahal duenera arte. Talde gonbidatu ugari izango dira. Andaluziako jaki eta edariak ere dastatu ahalko dituzte erromeriara hurbiltzen diren herritarrak. Larunbata eta igandea, Atsobakar parkea.



LASARTE-ORIA Rally SC Euskadi

Motor hotsak nagusi izango dira asteburuan Lasarte-Orian. Rally SC Euskadin parte hartzen duten motorrei harrera egingo zaie gaur, ostirala, eta igande arratsaldera arte, Lasarte-Orian izango dira. Egitarau zabala antolatu dute aurtengoan ere. Herritarrak vespa eta lambretta motoak ikustera hurbildu ahalko dira hainbat momentutan; larunbata goizean Okendo plazan izango dira, esate baterako. Lasarte-Oriako inguruetatik eta herrian zehar ibilaldiak egingo dituzte, eta indarrak berritzeko aukera ere izango dute. Gauetan estilo ugariak kontzertuetz eta DJ-er gozatu ahalko dute.

Ostiraletik igandera, Lasarte-Oria.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Erakusketa

Brancussi akademiako ikasleen ikasturte amaierako erakusketa ikusteko azken eguna da. Antonio Mercero gunea, 18:00etatik 20:30era.

LASARTE-ORIA Dantza

Udal dantza eskolako ikasleek ikasturte amaierako ikuskizuna eskainiko dute. Gonbidapenak agortuta daude. Manuel Lekuona, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Rally SC Euskadi

Vespa eta Lambretta Rally SC Euskadi kontzentrazioa izango da, Scooter Club Euskadik antolatua. Egitaraua: 19:00etan, harrera eta motor erakusketa, Jaizkibel plaza. 21:00etan, pintxo afaria, Buggy taberna. 22:30etan, gaueko ibilaldia. 23:00etan, Hiroshima taldearen kontzertua eta DJ-ak, Buenetxea. Lasarte-Oria, 19:00etatik aurrera.

LARUNBATA 15

LASARTE-ORIA Rally SC Euskadi

Rally SC Euskadi kontzentraziooko bigarren eguna. Egitaraua: 10:00etan, motor erakusketa, Okendo plaza. 11:00etan, Barrikotea, Artizar taberna. 12:00etan, Scooter run irteera. 15:00etan, bazkaria, Jauregi jatetxea. Sari banaketa eta zozketa.

18:30ean, motor erakusketa, Andapa kalea.

21:30etan, pintxo afaria, Buenetxea taberna.

22:00etan, Stupiditos taldearen kontzertua eta Magri SV eta Koko Txanel dJak, Buenetxea taberna. Lasarte-Oria, egun osoa.

LASARTE-ORIA Rocioko erromeria

Semblante Andaluz elkarteak XXVI. Rocioko erromeria antolatu du: 12:00etan, erromeria hasiera. 13:15ean, Gitanillas del Alba eta Duende dantza taldeen ikuskizuna. 14:30etan, eltzekada. 17:00etan, Azabache dantza taldearen emanaldia. 18:00etan, Irungo Embrujo Andaluz dantza taldearen ikuskizuna. 20:00etan, Amaia Gonzalez Caballero dantza eskola. 20:30etan, dantzialdia. Atsobakar parkea, 12:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Inaugurazioa

Jalgi Kafe Antzokiak berriro ere ateak irekiko ditu. Jalgi Kafe Antzokia, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako Oriarteko DBH 1. eta 2. mailako ikasleen emanaldia: - Zoroenea - TB Parodiya Manuel Lekuona, 20:00etan.

DONOSTIA Jaialdia

Wheels and Waves jaialdia Hipodromoan. 'El Rollo' Flack Track lasterketez gozatzeko aukera izango da. Aurten, Europako txapelketarako puntuagarri da. Sarrera, 10 euro.

Hipodromo, 11:00etatik aurrera.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Rally SC Euskadi

Rally SC Euskadi kontzentraziooko azken eguna. Egitaraua: 12:00etan, Motor erakusketa eta bermuta, Arkupe taberna. 14:30etan, paella jana eta erromeria, Atsobakar parkea. Agurra. Lasarte-Oria, 12:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Rocioko erromeria

Erromeriako bigarren eguneko egitaraua: 12:00etan, meza rocieroa, Semblante Rocierok abestia Arantzazuko Ama Birjinaren eliza. 13:00etan, Rocioko amaren irteera Atsobakar parkera. 14:00etan, ohorezko ardo udal ordezkari eta gonbidatuekin. 14:30etan, paella-jana. 16:30etan, Errenteriako Aljarafe elkarteko abesbatzaren emanaldia. 17:00etan, Errenteriako Concha Rociera elkarteko dantza eta koruaren emanaldia. 18:00etan, Andoingo Triana dantza taldearen ikuskizuna. 18:30etan, Gitanillas del Alba, Duende, Azabache eta Zambra dantza taldeen emanaldia. 19:30etan, Semblante Rociero koruaren emanaldia.

20:30ean, Agurra, Salve Rociera abestuko dute guztiak.

21:30etan, festa amaiera.

Atsobakar parkea, 12:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Dantza

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako euskal dantza-sorkuntza emanaldia egingo dute. LH4-5-6 eta DBH 1-2-3-4 mailako ikasleek eta helduek haien koreografiak eskainiko dituzte. Manuel Lekuona, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Inaugurazioa

Jalgi Kafe Antzokiak haurrei zuzendutako inaugurazioa egingo du. Irri-kantu merienda prestatu dute eta gonbidatu berezia izango da guztiak dantzan jartzeko, Porrotz. Jalgi Kafe antzokia, 18:30etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Antzerki eta dantza hamabostaldia amaitzeko, Oriarte Institutuko DBH3ko ikasleek Gu bai leloak antzeztuko dute. Manuel Lekuona, 20:00etan.

ASTELEHENA 17

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Lasarte-Oriako Pentsiodunen eta Erretiratuaren Koordinakundeak astero bezala elkarretaratzea egingo du pentsio duinen alde egiteko. Okendo plaza, 11:30etan.

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek ikasturte amaierako lehen kontzertua eskainiko dute. Manuel Lekuona, 19:00etan.

ASTEARTEA 18

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek ikasturte amaierako bigarren kontzertua eskainiko dute. Diploma banaketa ere izango da. Manuel Lekuona, 19:00etan.

ASTEAZKENA 19

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Drogek buru osasunari egiten dion kalteari buruzko hitzaldia antolatu du Agifese, Buru osasun arazoak dituzten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarteak. Aitor Sastre, Agifeseko Lehen Pertsonan Batzordeko kideak eskainiko du hitzaldia. Solasaldia gaztelaniaz izango da. Antonio Mercero aretoa, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Aintzane Usandizagak Kabitu ezina liburua aurkeztuko du Jalgi Kafe antzokian. Taxio Arrizabalagak gidatuko du saioa eta Estibaliz Garmendia eta Josu Etxeberriak pasarte batzuk irakurriko dituzte Unai de Andres baxua lagun dutela. Jalgi Kafe Antzokia, 19:30etan.

OSTEGUNA 20

LASARTE-ORIA Musika

Sin Fronteras taldearen kumbia eta erritmo latinoez gozatzeko aukera izango da, Leku guztietan kultura ekimenari esker. Goikale, 19:00etan.



FACTORY
VANRENT.eus
SAN SEBASTIÁN

bidaiatu ezazu autokarabanan!

95€tik aurrera



TLF: 943 504 480 | FACTORYVANRENT@GMAIL.COM | FACTORYVANRENT.EUS

UDAN

ERE

EUSKARA

ZURE

BIZITZAN!

UDA-IKASTARO TRINKOA uztailean!

Zatoz LASARTE-ORIAKO UDAL EUSKALTEGIRA!

MATRIKULA EPEA:

Ekainaren 21era arte
Non: Udal euskaltegian bertan
 Bekokale bidea 1, Lasarte-Oria

IKASTAROA:

Uztailaren 1etik 30era
 Astelehenetik ostiralera
 9:15etik 12:30era

Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus
 www.lasarte-oria.eus (administrazioa>udala zure zerbitzura)



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

EUSKARA
EUSKALTEGIA

LEKU GUZTIETAN KULTURA

Lasarte-Oria 2019

Ekainak **20** 19:00^{etatik} 20:00^{etara} Lekua **Goikale**



Sin Fronteras

Taldea

Erritmo Latino eta cumbia folklorikoaren fusioa



Emanaldiak

Ekainak **21** 19:00^{etatik} 20:00^{etara} Lekua **Okendo Plaza**

Eriz magoa

Magia emanaldia

Fantasia eta errealitatea elkartzen diren momentua



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO GABIA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO